

### GABI DE LA MAZA 40 URTE GARRENEAN YOU TUBEKO TXANTXANGORRIA



#### **Irakasleak ikaslearekin topo**

Domekako BERRIAN, 2019ko otsailaren 10ekoan, argazki ederrez, eta orrialde biko elkarrizketan berbalduen agertu zen Gabi de la Maza. Solasaldi horretan, Zihara Jainaga Larrinaga kazetariari erantzuten dio:

-Irakasle aritu zara gehienbat lanean.

-”Soldadutzatik bueltan, irakasle ikasketak hasi nituen. Garai hartan, nahiz eta asko maite eta interes handia izan, oraindik ere euskara maila oso baxua neukan. Hasieran, zientzien

adarrean matrikulatu nintzen, baina, Juan Luis Goikoetxea irakaslearen eraginez, euskal filologiara aldatu nintzen, egunean bertan” -Gabiren erantzuna.

Niri, neure izenaren BERRIAko aipamenak interesa piztu zidan, ze “Juan Luis Goikoetxearen eraginez” zioen Gabik. Neure buruari niotsan: bai deigarria 40 urte garrenean ikasle ohiak norbera izendatzea. Are deigarriago neure lau ilobekin -zortzi urtekoarengandik hasi eta laukoarenera artekoekin- You Tubeko abestien artean Gabi de la Mazaren txindorra ha maikatxo bider erabili ostean.

EHun eta hogeit mila bitari dituen You Tubeko bideogilearengan “eragina” izan nuela jakinik, bat bateko erabakiz, Txorierriko Baserri Antzokian ordaindu nion bazkaria, bide batez elkarrizketa grabatua bilduz.

### **Gabi de la Maza magisterio eskolako<sup>1</sup> ikasle**

-Honela diozu, Gabi: “Egun berean konbentzitu ninduzun”.

-Bai, zehatz gogoratzen dut, ze eskailerak korrika jaisten nindoan, eta zurekin talka egin hor eta kontatu zenidan guztia, behar zela jendea. Ia-ia militantzia zen matrikulatzea. Hainbat ikasle sartu ginen, asko euskara maila nahikorik ez geneukanak.

-Bai, Gabi. Guk euskarako koordinatzaile izendatuok, kurso horretan ipini genuen abian, bai euskara bera ikastea, baita Euskal Filologia ere, baina helburua bete zedin, filologiarrako ikasle premia genuenez, Patxi Uribarrenek eta biok ekin genion ikasleak batzeari.

“Errektore jaunaren eskariz, 1979-09-18an elkartu ginen Magisterioko irakasleok klaustroan. Besteak beste, guri hemen dagokigun gaiaz puntu erabakigarri bi aztertu ziren: 1.-Euskal Filologia ikasketetan sartzea. 2.- Euskara irakasgai komuntzat onartzea”<sup>2</sup>.

<sup>1</sup> Gaur Leioan den Bilboko Hezkuntza Fakultatea; 1962an Deustuan erakia eta orain eraitsia.

<sup>2</sup> Juan Luis Goikoetxea eta Udane Goikoetxea Bilbao: Traineru bete lagun:

Bestalde, zuen euskara maila hobetzeko, Gabi, ikastaro trinkoak antolatu genituen. “Aipamena merezi du ikasleen jarrerak eta motibazioak, ezen Unibertsitateko I.C.E.rekin lankidetzan 142 ikasleren artean 13 talde antolatu baitira Udako Kurtso Intentsiboetarako”<sup>3</sup>.

-Aldi hartan, elkarrekin harmailetan topo egitea zein tesuingurutan gertatu zen, Gabi?

-Bada, 1979ko iraila zen. Matrikula egitera joanda nengoen. Berez, gidari izateko primerako gidabaimena ateratzen niharduen, soldaduskatik etorri berri, taxiarekin lan egiteko, eta tar-te baten, Magisteritza Eskolara joan nintzen matrikulatzera. Ar-tean batxilergoa zientzietan egina nintzenez, Magisteritza Eskolan ere zientzietako matrikula bete nuen. Ordura ezker, batxilerra eta Maestria Industriala biak batera amaituak nituen, soldadutzara joan baino lehen. Gainera, soldaduska aurretik Peritoetan hasia nintzen 1976an. Gertatzen dena da, irakasle interinoen grebak hasi zirenez, otsaileko azterketak ez zirela gauzatu. Ondorioz, martxoan soldadu joan behar nenez, anulatu egin nuen matrikula. Soldaduskatik bueltan, lanean hasi nintzen. Hala ere, nire aukeren artean bazegoen Magisteritza egitea. Halaxe matrikulatu nintzen. Eta, hain zuzen, matrikula agiria eskuan nuela eskaileretatik behera nindoala agurtu genuen elkar eta aldarazi zenidan matrikula, erdaraz zientziak egitetik euskal filologiara. Nik zailtasun handiak nituen euskaraz; ulermen eskasa. Lagundu zenidan idazkaritzara eta konbentzitututa aldatu egin nuen matrikula. Ekin zenidan esanik, jendea behar zela euskal filologia abian jartzeko. Dena ere, orduko giro politikoan elkar ondo ulertzeari esker.

-Oroitzapen argi bezain garbia gordetzen duzu, Gabi. Bestalde, aipatu duzun ikasle premia, baieztza dezaket erabatekoa zela, ezen klaustroan onarturiko Euskal Filologiarako ikasleria

---

Iñaki Gaminde omenduz. EHU, 2018.

<sup>3</sup>O.C., 167 or.

nahitaezko baikenuen. Beraz, zuoi ikasleoi esker ere abiatu zen euskal filologia.

-Gogoan duzu, Gabi, euskara maila oso baxua izanik, zein eskaintza ugaria egiten genuen Magisteritza Eskolan urte haietan, dela ikastaroetan, dela barnetegian?

-Lehen maila amaitu eta udan -dio Gabik- klaseko batzuekin Dimako Indiabeti baserrian egin genuen barnetegia. Bigarren mailan, aste santuan, Xabier Olarra irakasleak bilatu zingun Berastegin borda bat barnetegia egiteko. Eta 3. maila amaitzean, udan, Aramaioko Etxaguen auzoan antolatu zeniguten barnetegia. Zurekin egon nintzen han Patxi Uribarrenen baserrian, Etxaguen auzoan. Egoteaz gain, nik autoa edukirik, Patxiarekin baserriz baseri joan ahal izan nintzen arratsaldeetan, ingurua ederto baten ezagutzea lorturik.

-Etxaguen auzoko barnetegiari esker ehunka pertsona euskaldundu da, Gabi, ze nik Magisteriotik alde eginik Institutuko Euskarako katedra atera nuenean ere, Txorierri Institutukoak bertara joaten jarraitu zuten urteetan.

-Horrez gain, benetako barnetegia izan zela magisteritzako karrera diozu, zein zentzutan? Zein ekintza konkreturengatik diozu hori?

-Euskara mailarik ez izatetik ikasketak euskaraz egitera aldatzean, magisteritza eskola benetako barnetegi bilakatu zen niretzat. Zuk Euskararen Didaktika irakusten zenigun. Euskara, berriz, HITZ EGIN metodoarekin; Euskaltzaindiak argitaratuarekin, IBERDUEROn diru laguntzaz: "Zurea da poltsa hau?". (Hori esanik, gozatsu dagi barre, Gabik.) Metodoa bera, eleberriak eta liburuxkak ere erabiltzen genituen.

-Hori metodologia guztiori, Gabi, erantzuten diot, nire egoeran logikoena zen, ezen Imanol Berriatuarekin metodogileetarikoa nintzen Euskaltzaindiko Oinarrizko Euskarako kidea era banintzelarik, alegia, Longman etxeko metodoa egokiturik taiututako HITZ EGIN horren kudeatzailea.

Elkarrizketako une horretan, orain berrogei urteko Gabiren gelakideen zerrendak nahiz euskarako kalifikazioak erakutsi dizkiot. Harridura puntua erakutsi du aurpegieraz, berarentzat sasoi hura urruneko aldia bailitz. Ordea, niri neuri Magisterio Eskolako artxibategi gordeak gaur bertoko sentipena sorrarazten du, iragan urruna lehentxoagora hurbilduz.

-Urtero egiten dugu bazkaria, Juan Luis, orduan ikaskide izan ginenok, Bego Ocio, Gloria Rey, Bingen Goitia, Josena Laucirica, Julen Baile, Marisa Egiluz, Mikel, Edorta, Belen,... Beste batzuekin harremanak izan ditu gero, Maria Isabel Ortiz de Urbina, nirekin egin zuen lan hamar urte barnetegian; Josu Lavin euskara zaharrean idazten duena; Arrietako ikasle bat ere badago: Garbiñe Alegria, ni gero Arrietan izan nintzen irakasle eta badakit.

-Josu Lavinekin hainbat urtez hartu nuen parte, Gabi, Federico Krutwigek gurekin sorturiko Jakhintza Baitha ikerlan taldean. Harrezkero, lapurtera klasikoz idazten du, eta idatzi ere bikain.

-Harritu egiten naiz neure eta orduko ikasleoren kalifikazioak-eta 40 urte garrenean aurkituta. Holakoak gordetzea handia da gero, Juan Luis.

-Bai, edonoiz denak botako ditut, baina artxibatuta iraun dute gaur arte.

### **Gabi de la Maza irakasle**

-Gu hirugarren mailan geundenean, gehienok lanera joan ginen. Irakasle ikasketak oraindik bukatu gabe, 1980an Plentziako eskolan hasi nintzen lanean. Euskara irakasleak behar ziren, eta titulu gabeko asko sartu ginen. Urtebete egin nuen Plentzian. Hurrengo urtean ikasketak amaituta, delegaziotik deitu zidaten Arrieta-Liboko eskolara joateko. Frankismo ondorengo lehen maisu euskalduna izan nintzen. Hiru urte zoragarri igaro nituen bertan.

-Esperientziak irakatsi didana da, euskara irakastean, giroa oso kontuan hartu beharrekoa dela. Esate baterako, ni A erduan aritu nintzenean, Plentziako eskolan, oraindik Lemoizko Zentral Nuklearra indarrean zela, klase bakoitzean 30/35 ikasle nituen, euretarik 6 edo 8 exentoak, euskara ez ikasteko bai mena zutenak, zentraleko langileen seme-alabak.

-Gero, Arrieta-Liboko eskolan izan zinenean, sentitu zenuen bizkaiera lantzearen premiarik? Bertako euskarako zer gertatzen zitzaizun deigarri?

-Bai, hori dela eta 1984an IRALEn bizkaiera ikastaroa egin nuen. Ikasleek, kasurako, hizkuntzaren ekonomiaz arrunt baliatzen ziren: iragan forma zuzenak askotan edo inoiz ez zituzten erabiltzen, “neban”en ordez “doten” esaten zuten.

Ostean, 1984an oposizioak gainditu nituen, eta Gorlizko eskolara etorri nintzen. Zazpi urte egin nituen hor, lau zuzendari karguan. Tarte horretan udaleko hirigintza zinegotzi ere izan nintzen Herri Batasunaren izenean. 1991ko irailean Plentziako Euskal Girotze Barnetegian sartu nintzen. Berez, nire irakaskuntzako ibilbidea honela hasi zen: euskal filologiako 3.mailan geundenongana etorri ziren Atxirika, Kolesti eta Jabi Etxegarai Mungiakoa -hau gero neure semearen irakasle izan zen, soinketakoa-, eta denoi eskaini ziguten irakasle-lanpostua. Jarraian, hamaika urte eman nituen irakaskuntza arautuan. Ostean, Euskal Girotze Barnetegian aritu izan naiz.

-Zuk diozu; Gabi, ikasketak amaitu baino lehen hasi zinetela irakaskuntzan. Hala da, baina azalpen laburra merezi du baieztapen horrek: Zuei euskal filologiako maisu-maistra izateko burutu behar zenituzten praktiken ordez balio izan zizuten eskoletan euskara irakasten jarduteak -euskara baino ez-, eta, gainera, soldata ona irabazita. Irakaslerik ez zegoenez, idoneitate onartu zitzaizuen, gaituak edo idoneoak zineten. Ondorioetariko bat izan zen irakasleontzat, orduz kanpo eman behar zitzaizkizuela klaseak, edo arratsalde edo zapataz.

-Zuk zer ekarpen egin zenuen Euskal Girotze Barnetegian?

-Eubatik Plentziara ekarri zuten barnetegia. Barnetegietan sarturiko irakasle bakoitzak bere eskarmentuak eta formazioa erabili dituzte ekimenak eta metodoak aplikatzeko. Nire kasuan Plentziara heltzean, 1991n, aurreko 11 urtean irakaskuntzan ikasitakoa, Arrietakoa, soinketa espezializazioarena, elektronikara, eta abar aplikatzen ahalegindu nintzen.

-Zu, gainera, elektronika ikasia zinen. Noiz eta non ikasi zenuen?

-Atxuriko Emilio Campuzano zentroan burutu nuen Maestria Industriala. Elektronika arloan ikasketak osatu nituen soldaduskara joan baino lehen. Ordenagailuak barnetegira heldu zirenean, jadanik baneukan tresnerietarako zaletasuna informatikan sakontzeko ere erabili nuen. Eskolara lehen ordenagailuak iritsi zirenean, ordu asko sartzen nituen ordenagailuak desmontatzen eta muntatzen. Elektronikarako nire zaletasunak barnetegiari hainbat ekarpen egin zizkion.

### **You Tubeko Gabi de la Maza**

-Zelan eman zenuen You Tuberako jautzia?

Nik banituen karaokeak You Tube sortu baino lehen. 1991n Barnetegian sartu nintzenean. Egunero egiten zen ordubeteko saioa edo hiru laurdenekoa. Egiten genituen idazmakinez txostenak eta ikasleak paperarekin parte hartzen zuten. Ipintzen genuen biniloa eta hor egoten ginen. Gero etorri ziren CDak; ondoren, kanoiak ordenagailuarekin pantaila batera proiektatzeko. Halako baten esan nion neure buruari, bideo bat eginez gero, letra ere bertan sartuta, karaokea burua altxatuta egin daiteke, papereko testuaren premia barik, abeslaria ahots bat gehiago dela. Gainera, ikasleek proposatu zidaten ematen genizkien DVDetan ez zeuden karaokeak You Tubera igotzeko. Ondorioz, 2008n ikasleek eskatuta youtube kanala sortu nuen 2004tik egiten nituen karaokeak igotzeko. 2.550 bideo ditut kanalean. Bakoitza egiten lau ordu ematen ditut. Beraz, hasieran lanerako egiten nuena afizio bilakatu zitzaidan.

## **Gabi de la Maza Alonsoren You Tuberako filosofia**

-Zureak, Gabi, karaokeak baino zerbait gehiago dira.

-Nireak ez dira karaoke tradizionalak. Nireak taldean kantatzeko dira, ez bakarka. Abeslariaren ahotsa bat gehiago da. Abestiek sentimenduak eta emozioa transmititzen dituzte. Barnetegira iristen zen haur batek, esate baterako, ez dakit gogoratuko duen euskaraz mintzatu zela; gogoratuko duena da ondo pasatu zuela. Gero, handik dozena erdi urtera aspaldiko kanta bat entzutean, euskararekin lotutako sentipen positiboak sortuko zaizkio. Horretan metodologia aldaketa ezagutu dugu irakaskuntzan. Pertsona helduei begira, aldiz, kanalean letrak ipintzea oso garrantzitsua da, kantaguneak daudelako: Baiona Kantari, Bilbo Kantari, eta abar. Ondorioz, jendeak letra ere bilatzen du nire You Tubeetan.

-Zuk honela diozu: “gertutik bizi izan dut euskararen motibazioan izan den bilakaera”. Adibidea beharko nuke, Gabi. Guk magisteritzako kurtsoetan erabilera egiten genuela indar diozu eta erabil dadin presioa egiten genuela, ez gero zuk bezala motibazioa bultzatu. Esate baterako, Zizur Txikin hogerekoa ordaindu behar zuten erdaraz eginez gero, Euskaltzaindian euskalduntzen ari ziren udako ikastaroetan, 1972an.

-Barnetegian -dio Gabik, 2000. urtera arte ia ia hori zen gehien bat erabiltzen zen metodologia, bai magisteritzan, AEK-n, euskaltegietan, ikastetxeetan zein barnetegietan: Euskal inguru zaindua, isolatua, euskalduna, denboraz luzea,... Hau da, presio giro bat. Erabilera handiagotzea zen helburua; baita erdaraz ez egitea ere, oker egina zuzentzea, eta abar. Gero urteen poderioz konturatu ginen desmotibazioa sortzen zela. Zergatik? Bada, ume bat etortzen bada arazoren batekin, komunikatu egin gura dizu gaia, berdin da euskaraz edo gazteleraz, kontua azaldu egitea da harentzat. Une horretan zuk eskatzen badiozu beti egin behar dela euskaraz, hark pentsa lezake bere arazoak bost axola dizula zuri, interes bakarra euskaraz egitea dela. Horrek askotan ikasleengan desmotibazioa eta jarre-



ra negatiboak sortzen zituen. Barnetegietan 2004. urtetik aurrera erabileraren garrantzia ahaztu gabe, euskararekiko jarrera jarri zen erdigunean. Euskara derrigorrez egin behar izatetik, egin nahi izatera aldatu ginen.

-Motibazioa lantzeko, pertsonen sentimenduak eta taldearen dinamika lantzen direla diozu. Adibiderik?

Erabiltzen genuen teknika Reflect metodologian datza: ekin-tza-hausnarketa-ekintza. Hau da, talde-dinamika bat proposatzen zaio taldeari. Hori egitean, interakzio pertsonalak sortzen dira, eta taldean dauden arazoak zein ikasle bakoitzaren pertsonalitatea nabarmendu daitezke. Ekimena burutu ostean, biribilean eserita hausnarketa egiten da (euskaraz eta bakoitzaren iritzia errespetatuz). Eta bukatzeko beste ekintza bat ikusteko taldean zerbait aldatu den. Teknika honekin, taldeko eta taldea osatzen duten pertsonen arazoei buruz hitz egiten da. Horrek, sinesmenak, sentimenduak zein identitatea ukitzen du.

-Labur adierazita, nor zara You Tuben munduan, Gabi? Ehun milioi bisitari dituzula diozu. Kopuru harrigarrietan mugitzen zara.

-Bai, gaur egun, lehenengo kanala zabaldu nuela 11 urte betetzear daudenean, 120.000.000 bisita izan dituzte igo ditudan 2.550 euskal abestiek. Eta kanal honek 54.000 harpidedun ditu. Hala ere, ez naiz You Tubetik irabazten dudanetik bizi. Beraz, ez naiz You Tuberra, aspaldian ez dut dirurik jaso.

-Hain produkzio oparoa sortzeko, zein ordutan egiten duzu lan?

-Beharrean nenbilenean, ikerlana afaldu ostean burutzen nuen, gutxi gorabehera 22:00 etatik 00:02etara; inoiz 0:04ak arte ere bai. Gero, hurrengo goizean lanera. Jubilatu ondoren behar gutxiago egiten dut, zeren abesti asko jadanik eginak baititut.

-Hori duk, mutil, osasuna eta militantzia! Halako ospea eta izena irabazi ondorik lortu duzu eskolarik sortzea, jarraitzailerik?

Duela 6/7 urte bazen Lugoko mutil bat, euskara ikasten ziharduen galegoa, eta laguntza eskatu zidan berak antzeko kanala zabaltzeko Galitziako kantekin. Zabaldu zuen: Cancións en Galego. Nirekin euskaraz egiten du. Lana gauzatzeko, manuala, PDFa bidali nion; eta galegoa den arren euskaraz igorri nion. Beste bat Antxon Jauregi da. Ikastaro baten geundela ezagutu genuen elkar. Badauka kanal bat Karantxon deitzen dena.

-Zure produkzio erraldoia gorde dadin, zer egin daiteke?

-Suposatzen dut izango direla fundazio edo elkarteak interneteko hostingak, egoitzak, zeinetan gorde ahalko den ondare hau. Oraingoaz neure disko gogorrean eta beste disko gogor baten ditut gordeta. Baina 2.550 bideo asko dira. Edonola ere, badituzte neure zalantzak, zeren baliteke egunen batean Europako legeak aginduta You Tube desagertzea. Hori errekurtsio didaktiko moduan-eta galera handia izango litzateke. Behar bada, inoiz ez da gertatuko baina arriskua hor da.

Nola ikusten duzu gaur eguneko gazteria You Tuberen kanaletan, interneten espazioan eta Amazonen komertzioan bizi dena?

-Nire inguruan ikusten dudana da, gazte bat daukazunean aurrean, badakizula, printzipioz, euskara dakiena.

### **Urrezko txindorra, ohorezko txantxangorria**

Nik neure ilobekin Gabi de la Mazaren You Tubeko abes-  
tiak, bakoitzarekin aldi baten, etengabe entzun eta landu ditut. Zorretan nago Gabi ikasle izandako sortzaile hain oparoarekin, eta ni bezainbat beste milaka euskaldun. Poza da orain 40 urte Magisterioko harmailetan elkarregaz topo egiteari oraingo gailurretik begiratzea. Joan diren urteak bete-beteak izan dira. Zure izena izanak bilakatu du ospetsu.

Har dezagun geuretzat, Gabi, Bernat Etxepare idazle-profetak dioskuna: Benedika fortuna ala enkontru ona.

*Juan Luis Goikoetxea Arrieta*